

# INGURUMEN POLITIKA

Debabarrena Erakunde Sanitario Integratua (aurrerantzean DEBABARRENA ESI) Osakidetzaren mendeko erakundea da eta Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mutriku, Deba eta Mendarok osatzen duten Debabarrena eskualdeko biztanleak osasun zerbitzuz hornitzen ditu.

DEBABARRENA ESlak ingurumena zaindu eta errespetatzen du bere eguneroko jardunean, hala osasun- arreta emateari dagokionez ñola irakaskuntza eta ikerkuntzaren arloan. Horretarako. interes-talde guztiak inplikatu ditu ingurumeneko helburuak definitu eta lortzeko.

Ingurumenaren jasangarritasuna ezinbesteko elementu bat da gure Plan Estrategikoan, eta kontuan hartzen dugu plan horretan ezarritako programa eta proiektuetan.

Era berean, DEBABARRENA ESlak bat egiten du Osakidetzako Zuzendari Nagusiak onartutako Ingurumenaren Jasangarritasun Politikarekin, eta bertan jasotako konpromiso eta lehenetsun hauekin:

- ✓ INGURUMEN-ALDAGAIA barneratzea Osakidetzako erakundearen planifikazioan eta kudeaketan, egunetik egunera hobea izan dadin ingurunearekin duen jokabidea.
- ✓ INDARREKO ARAUAK ETA LEGEDIA BETETZEN direla bermatzea. baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.
- ✓ INGURUMEN-ALDERDIEN IDENTIFIKAZIOA eta EBALUAZIOA sustatzea, eta ETENGABEKO HOBEKUNTZA eta INGURUMENAREN BABESA bermatuko duten ekintza jakinak eta jardunbide egokiak zehaztea (KUTSADURAREN PREBENTZIOA barne)
- ✓ Osakidetzako profesionalak PRESTATZEA ETA SENTSIBIUZATZEA, eguneroko jardunean inplikatu daitezten eta lagundu dezaten iraunkortasuna hobetzen.
- ✓ ELKARRIZKETA, sentsibilizazioa. orientazioa eta inplikazioa sustatzea gai honetan zeresana duten talde guztietan.

Horregatik, DEBABARRENA ESlak konpromisoa hartzen du Ingurumen Politika erakundearen profesionalen artean ezagutzera emateko eta publikoaren eskura jartzeko.

Mendaro, 2022ko abenduaren 1a



Asier Esnal Albizu  
Zuzendari Gerente